

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 10:00 horas del día 16 de diciembre de 2023, se reúnen en calidad de candidatos electos en las elecciones locales convocadas por el Real Decreto Real Decreto 758/2023, de 2 de octubre, y celebradas el pasado día 26 de noviembre, los Srs./as. D. JOSE IRIGARAY GIL, DÑA. ANA AZANZA BURUSCO, DÑA. ANDREA JUANDEABURRE SERNA, D. UNAI IRIGARAY OSÉS y D. EDER MARTÍNEZ DE MIGUEL, actuando como Secretaria D<sup>a</sup>. Marisol Ezcurra Irure, con objeto de proceder a la Constitución de la Corporación Municipal y a la elección del Alcalde, todo ello en virtud de lo dispuesto en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Local y en el Reglamento de Organización, funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Es objeto de la presente reunión la celebración de la sesión constitutiva de la Corporación y la elección de Alcalde o Alcaldesa, conforme a lo establecido en los artículos 195 y 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General (LOREG, en adelante), y en el artículo 37 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre (ROF, en adelante).

#### **FORMACIÓN DE LA MESA DE EDAD.**

A fin de constituir la corporación, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 195.2 de la LOREG y 37.2 del ROF, se procede a constituir la Mesa de Edad, integrada por los elegidos de mayor y menor edad presentes en el acto, que resultan ser, respectivamente D. José Irigaray Gil, que actúa como Presidente, y D. Eder Martínez de Miguel, que actúa como Vocal, actuando de Secretaria la que certifica por serlo de la Corporación.

#### **CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN.**

Acto seguido, Por los miembros de la Mesa de Edad se procede a la comprobación de las credenciales presentadas y las acreditaciones de la personalidad de los electos, encontrándolas conformes.

Asimismo, la Mesa de Edad comprueba que la totalidad de los electos presentes han formulado ante la Secretaría del Ayuntamiento la declaración sobre causas de posible incompatibilidad y actividades que les proporcionen o puedan proporcionar ingresos económicos y la declaración sobre sus bienes patrimoniales, todo ello de conformidad y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 75.7 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Formando este Ayuntamiento un número de 5 Concejales, y habiendo concurrido al acto, según comprobación de la mesa, un total de 5 Concejales electos, se cumple el requisito a que se refieren el artículo 195.4 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral

General y el artículo 37.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, que dispone que para la constitución de la Corporación es preciso la asistencia de la mayoría absoluta de los Concejales electos.

Seguidamente, de acuerdo con lo establecido en el artículo 108.6 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General los nuevos Concejales son requeridos por el Presidente de la Mesa de Edad para prestar solemne juramento o promesa. El Presidente de la Mesa formula, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 707/1979, de 5 de Abril, a cada uno de los Concejales la siguiente pregunta “¿Juráis o prometéis cumplir fielmente las obligaciones de vuestro cargo de Concejales con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado?”.

Así lo prometen por imperativo legal los/as concejales/as D. Eder Martínez de Miguel, y D<sup>a</sup>. Ana Azanza Burusco, D. Unai Irigaray Osés y D<sup>a</sup>. Andrea Juandeaburre Serna, y lo promete D. José Irigaray Gil, tomando todos ellos posesión de sus respectivos cargos.

Realizados los trámites anteriores todos los electos presentes toman formalmente posesión de su cargo de Concejales o Concejales, tras lo cual, comprobado que concurre a la sesión la mayoría absoluta de los Concejales electos, la Mesa, a través de su Presidente, declara constituida la Corporación municipal.

### **ELECCIÓN DE ALCALDE-TOMA DE POSESIÓN**

Acto seguido, la Sr<sup>a</sup>. Secretaria, de orden de la Mesa de Edad, da lectura a las normas reguladoras de la elección del Alcalde o Alcaldesa, contenidas en el artículo 196 de la LOREG.

El Sr. Presidente de la Mesa da cuenta que si alguno de los candidatos obtiene la mayoría absoluta de los votos de los concejales será proclamado alcalde, sino será proclamado alcalde el concejal/la que hubiere obtenido más votos populares en las elecciones.

A continuación, se procede a la elección de Alcalde o Alcaldesa por el procedimiento de voto secreto, para lo cual los Sres. Concejales van siendo llamados por la Mesa de Edad en el orden en que figura en las certificaciones de la Junta Electoral de Zona, para que depositen su voto en la urna colocada al efecto.

Seguidamente se procede a la votación con el siguiente resultado:

D. Unai Irigaray Osés ..... 5 votos

Terminado el escrutinio sin que se haya producido protesta alguna sobre la votación se declara proclamado legalmente Alcalde de este Ayuntamiento D. Unai Irigaray Osés

Aceptado expresamente el cargo de Alcalde para el que ha sido elegido, D. Unai Irigaray Osés, presta promesa por imperativo legal de cumplir fielmente las obligaciones del cargo con lealtad al Rey y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado, tras lo cual toma posesión del cargo y pasa a ocupar la Presidencia del Pleno.

El alcalde saliente D. José Irigaray hace entrega al nuevo alcalde D. Unai Irigaray Osés de la vara, atributo de la Alcaldía y pronuncia las siguientes palabras:

*En este acto cargado de simbolismo te hago entrega de la vara de la Justicia. Una vara instaurada en estas instituciones decimonónicas como son los ayuntamientos y donde toda la carga caía en el alcalde de turno. A finales del siglo XIX hubo un alcalde, seguro aplaudido por unos y denostado por otros al que le cantaban la siguiente copla.*

*La vara de la justicia,  
la lleva quien la merece;  
don Miguel María Masso...  
¡Ojalá la lleve siempre!*

*En el siglo XXI las cosas deben cambiar y esa vara que representa a todo el vecindario recibida en tus manos debe ser cogida por todos los corporativos y ojalá dentro de cuatro años la copla pueda ser cantada adaptada a todos los miembros de la Corporación actual por la buena trayectoria en su cargo público.*

*Gora Auritz! ¡viva Burguete!*

Cumplido el objeto de la convocatoria de la presente sesión, el Sr. Alcalde toma la palabra y dice lo siguiente:

*Egun on deneri. Lehenik eta behin eskerrak Aurizko herriari gu bostongan jarri duen konfiantzarengatik herri eta udal hau gobernatzeko, ohore handia baita gure herriko gobernua osatzea. Aro berri bati ekiten diogu gaurkoan, elkarrekin eta auzolanean.*

*Acaba un proceso electoral en el que volvemos a conformar un Ayuntamiento y cómo todo proceso electoral ha dado lugar al debate, a mostrar nuestros compromisos, nuestras diferencias y una vez acabado nos ponemos a trabajar para todas las vecinas y vecinos de Auritz-Burguete. Renovación y relevo creo que son dos palabras que describen muy bien lo que está sucediendo hoy en este salón de plenos. Renovación, porque formamos una corporación renovada, con caras nuevas y con nuevas ideas. Me gustaría agradecer a las personas que hasta hoy han formado este pleno y les pido que aunque hoy cesen de sus funciones, sigan participando de forma activa en la vida de*

*este pueblo. Relevo porque una nueva generación recoge el testigo de esta institución con ilusión por trabajar y por aprender. Somos conscientes de que en este camino tendremos errores y de ellos aprenderemos, pero deseo que sean los aciertos los que marquen nuestro camino. A los corporativos que continúan esta legislatura, les pido que sigan transmitiendo su experiencia y enseñándonos en este camino, y les pido también que estén abiertos a nuevas ideas y maneras de hacer las cosas.*

*Burguete, cómo muchos otros, es un pueblo heterogéneo, con personas que tiene ideas y visiones diversas, sentimientos identitarios diferentes, pero al mismo tiempo somos un pueblo unido y cohesionado con un sentimiento de pertenencia claro, el de la comunidad auriztarra. El grupo que hemos conformado es un grupo diverso, con diferentes visiones y sensibilidades que pretende responder a esa diversidad que he mencionado. Venimos a debatir, a discutir, a trabajar, a construir un futuro para nuestro pueblo y nuestra comarca, a escuchar y a tomar decisiones en pro del bien común y el interés general. El futuro de Auritz-Burguete, es aquí y es ahora. Somos nosotros y nosotras y está esperando que lo construyamos entre todos y todas.*

*Auzolanean eginen diegu aurre etorkizunak dakartzan erronkei; despopulazioa, gazteen joatea eta abar luze bat. Argi dugu instituzio indartsuak behar ditugula hauei erantzuteko eta batez ere, entitate desberdinetako elkarlana eta lankidetzak. Izan ere, Auritzek dituen arazo eta erronkak Pirinio osoan dauden bertsuak dira eta indarrak metatzea dagokigu, argi eta garbi errateko hemen badela lan eta bizi nahi duen komunitate bat, oztopo guztien gainetik.*

*Vivimos en una sociedad cambiante, una sociedad que se piensa y se plantea desde las grandes urbes y que abandona a zonas rurales como la nuestra. Un abandono que responde a la necesidad de mantener el nivel de vida que ha generado este sistema consumista y extractivista a costa de nuestros bienes naturales y que ha generado de las ciudades lugares casi inhabitables estableciendo las zonas rurales única y exclusivamente cómo vía de escape. Frente a este modelo social y económico, debemos defender nuestra tierra y nuestros montes, el comunal, los intereses de nuestros vecinos, nuestra economía y nuestras formas de vida.*

*Hau izanen da beraz dugun egiteko nagusia, herriak dituen erronkei erantzutea eta auriztarron bizitzak bizigarriak eta duinak izan daitezen lan egitea. Ekin diezaiogun beraz lanari. Arduraz, konpromisoz eta ilusioz. Trabajemos con responsabilidad, compromiso e ilusión por Burguete, gora herria!*

## **PRESENTACIÓN DE ARQUEO E INVENTARIO**

Acto seguido el Sr. Interventor da cuenta del arqueo de fondos a 15 de diciembre de 2023 firmado por el Alcalde Saliente y por la Interventora-Secretaria y que arroja un total de existencias de 322.442,57 euros.

Y siendo las 11:00 horas se levantó la Sesión de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2023ko abenduaren 16ko 11:00etan, urriaren 2ko 758/2023 Errege Dekretuak deitutako eta azaroaren 26an egindako toki-hauteskundeetan hautagai hautatu gisa, JOSE IRIGARAY GIL, ANA AZANZA BURUSCO, ANDREA JUANDEABURRE SERNA, EDER MARTINEZ DE MIGUEL eta UNAI IRIGARAY OSES eta idazkari gisa, Marisol Ezcurra Irure, bildu dira Udalbatza eratu eta alkatetza hautatzeko, Toki Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudian xedatutakoaren arabera.

Bilera honen xedea da Udalbatza eratzeko bilkura egitea eta alkatea aukeratzea, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren (aurrerantzean, HAOLO) 195. eta 196. artikuluetan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren (aurrerantzean, AJA) 37. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **ADIN MAHAIA OSATZEA**

AOLOren 195.2 artikuluan eta AJAren 37.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Adineko Mahaia eratuko da, hautatuen artean adinez nagusienak eta txikienak osatuko dute, hurrenez hurren, Jose Irigaray Gil jauna (lehendakaria) eta Eder Martinez De Miguel jauna (batzordekidea) eta idazkari lanetan udalbatzako idazkaria arituko da.

#### **UDALBATZA ERATZEA**

Adineko Mahaiko kideek hautagaiek aurkeztutako egiaztagiriak eta nortasunaren egiaztagiriak egiaztatu dituzte, eta ados daudela adierazi dute.

Era berean, Adineko Mahaia egiaztatu du bertaratutako hautetsi guztiek Udaleko Idazkaritzan aurkeztu dutela balizko bateraezintasun-arrazoiei eta diru-sarrerak ematen dizkieten edo eman diezazkieketen jardueri buruzko adierazpena, bai eta beren ondare-ondasunei buruzko aitortpena ere, hori guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz eta hori betez.

Udal hau 5 zinegotzik osatzen dute eta, mahaiaren egiaztapenaren arabera, guztira 5 zinegotzi hautetsi bertaratu dira, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195.4 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 37.4 artikuluan aipatzen den baldintza

betetzen da. Artikulu horren arabera, Udalbatza eratzeko beharrezkoa da hautatutako zinegotzien gehiengo osoa bertaratzea.

Jarraian, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako formularen arabera, hautatutako hautagaiek, banaka, karguaren betebeharrak Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa gordetzeko eta gordetzearen zina/hitza eman dute, bertaratutako guztien aurrean, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen ziurtagirietan agertzen den hurrenkeran

Legeak aginduta, hitz eman dute Eder Martínez de Miguel, Ana Azanza Burusco, Unai Irigaray Osés eta Andrea Juandeaburre Serna zinegotziek, eta hitz eman du Jose Irigaray Gil zinegotziak eta guztiek beren karguez jabetu dira.

Aurreko izapideak egin ondoren, bertaratutako hautetsi guztiek formalki hartu dute zinegotzi kargua, eta, horren ondoren, zinegotzi hautetsien gehiengo osoa bilkurara aurkezten dela egiaztatuta, Mahaiak, Mahaiburuaren bitartez, Udalbatza osatutzat eman du.

#### **ALKATEA HAUTATZEA-KARGUA HARTZEA**

Jarraian, idazkariak, Adineko Mahaiaren aginduz, alkatea hautatzeko arauak irakurri ditu, AOLOren 196. artikuluan jasotakoak.

Mahaiburuak jakinarazi du hautagairen batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, alkate izendatuko dutela, eta lortzen ez badu, hauteskundeetan herri-boto gehien lortu dituen zinegotzia izendatuko dutela alkate.

Ondoren, alkatea hautatzen da, isilpeko botoa emanez. Horretarako, Adineko Mahaiak zinegotziei dei egiten die, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen ziurtagirietan agertzen den hurrenkeran, horretarako prestatutako hautestontzian botoa eman dezaten.

Jarraian bozketa egin da eta emaitzak hauek izan dira:

Unai Irigaray Osés ..... 5 boto

Boto-zenbaketa amaitu eta bozketari buruzko protestarik egin ez denez, Unai Irigaray Osés jauna legez alkate izendatu da.

Alkate izateko hautatua izan den kargua berariaz onartuta, Unai Irigaray Osés jaunak karguaren betebeharrak leialtasunez beteko dituela hitz ematen du, legeak hala aginduta, Erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa Estatuaren oinarritzko arau gisa gordeko duela. Horren ondoren, karguaz jabetu eta Osoko Bilkuraren Lehendakaritza hartuko du.

Kargua utzi duen alkateak, Jose Irigaray jaunak, makila eman dio alkate berriari, Unai Irigaray Oses, alkatetzaren atributua baita eta honakoa esan du:

*Sinbolismoz betetako ekitaldi honetan, Justiziaren makila ematen dizut. Hemeretzigarren mendeko erakundeetan ezarri zen makila, udaletan hain zuzen ere, eta zama guztia txandakako alkatearengan erortzen zen. XIX. mendearen amaieran zegoen alkateari (batzuek txalotu eta besteek iraindu zutena) honako koplak hau abesten zioten:*

*Justiziaren makila,  
merezi duenak darama;  
Miguel María Masso jaunak...  
Beti eraman dezala!*

*XXI. mendean gauzak aldatu egin behar dira, eta zure eskuetan jasotako bizilagun guztiak ordezkatzeko dituen makila hau udalbatzako kide guztiek hartu behar dute, eta, nahiko nuke lau urte barru koplak egungo korporazioko kide guztiei egokitu ahal izatea, kargu publikoan izandako ibilbide onagatik.*

*Gora Auritz!*

*Bilkura honen helburua beteta, alkateak hitza hartu du eta honakoa esan du:*

*Egun on deneri. Lehenik eta behin eskerrak Aurizko herriari gu bostongan jarri duen konfiantzarengatik herri eta udal hau gobernatzeko, ohore handia baita gure herriko gobernua osatzea. Aro berri bati ekiten diogu gaurkoan, elkarrekin eta auzolanean. Hauteskunde-prozesu bat amaitzen ari da, eta Udala osatzen ari gara berriro, eta, hauteskunde-prozesu orok bezala, eztabaida ekarri du, gure konpromisoak eta desadostasunak azaldu ditugu, eta, amaitutakoan, Aurizko bizilagun guztientzat lanean hasten gara. Berritzeak eta erreleboak gaur osoko bilkuren aretoan gertatzen ari dena oso ondo deskribatzen duten bi hitz direla uste dut. Berritzea, korporazio berritu bat osatzen dugulako, aurpegi berriekin eta ideia berriekin. Eskerrak eman nahi dizkiet gaur arte osoko bilkura hau osatu duten pertsoneri, eta eskatzen dizuet, nahiz eta gaur euren funtzioak bertan behera utzi, herri honen bizitzan aktiboki parte hartzen jarrai dezatela. Erreleboa, belaunaldi berri batek erakunde honen lekukoa hartzen duelako, lan egiteko eta ikasteko ilusioz. Badakigu bide horretan akatsak egingo ditugula eta horietatik ikasiko dugula, baina gure bide propioa egitea nahi dut. Legegintzaldi honetan jarraitzen duten zinegotzietan beren esperientzia transmititzen eta bide horretan irakasten jarraitzeko eskatzen diet, eta gauzak egiteko ideia eta modu berrietara irekita egoteko ere eskatzen diet.*

*Auritz, beste asko bezala, herri heterogeneoa da, ideia eta ikuspegi desberdinak, identitate sentimendu desberdinak dituzten pertsoez osatua, baina, aldi berean, herri batua eta kohesionatua gara, kide izatearen sentimendu argia duena, komunitate auriztarrarena.. Osatu dugun taldea askotarikoa da, hainbat ikuspegi eta sentsibiltate dituena, eta aipatu dudan aniztasun horri erantzun nahi dio. Eztabaidatzera eta lan egitera, gure herriarentzat eta gure eskualdearentzat etorkizuna eraikitzen, entzutera eta guztion ongiaren eta interes orokorraren aldeko erabakiak hartzen gaituz. Aurizko etorkizuna hemen da eta orain da. Gu geu gara, eta denon artean eraikitzen zain dago. Auzolanean egingen diegu aurre etorkizunak dakartzan erronkei; despoblazioa, gazteen joatea eta abar luze bat. Argi dugu instituzio indartsuak behar ditugula hauei erantzuteko eta batez ere, entitate desberdinetako elkarlana eta lankidetzak. Izan ere, Auritzek dituen arazo eta erronkak Pirinio osoan dauden bertsuak dira eta indarrak metatzea dagokigu, argi eta garbi errateko hemen badela lan eta bizi nahi duen komunitate bat, oztopo guztien gainetik.*

*Gizarte aldakor batean bizi gara, hiri handietatik pentsatzen eta planteatzen den eta gurea bezalako landa-eremuak alde batera uzten dituen gizarte batean. Gure ondasun naturalen kontura sistema kontsumista eta estraktibista honek sortu duen bizi-mailari eusteko beharrari erantzuten dio abandonu horrek, eta hiriak ia bizitzeko moduko leku bihurtu ditu, landa-eremuak ihesbide gisa soilik ezarri. Eredua sozial eta ekonomiko honen aurrean, gure lurra eta mendiak, herriko lurrak, gure bizilagunen interesak, gure ekonomia eta gure bizimoduak defendatu behar ditugu. Hau izanen da, beraz, dugun egiteko nagusia, herriak dituen erronkei erantzutea eta auriztarron bizitzak bizigarriak eta duinak izan daitezen lan egitea. Ekin diezaiogun beraz lanari. Arduraz, konpromisoz eta ilusioz. Gora herria!*

## **KONTAKETA ETA INBENTARIOAREN AURKEZPENA**

Jarraian, kontu-hartzaileak funtsen kontaktaren berri eman du, 2003ko abenduaren 15ean. Kargua uzten duen alkateak eta kontu-hartzaile-idazkariak sinatu dute, eta guztira 322.442,57 euroko izakinak eman ditu.

Eta 11:00etan bilkurari bukaera eman zaio eta nik neuk fede eman dut.